



Usurbilgo Udala

## **2020ko UDAL AURREKONTUEN MEMORIA**

### **SARRERAK:**

Aurkezten ditugun aurrekontuen zehaztapenetan sartu aurretik, aipatu nahi genuke diru sarrera kopuru adierazgarria izango duela Usurbilgo Udalak: 12.375.710€ hain zuzen ere. Iaz baino 320.000 euro gehiago izango dira, eta esan beharra dago herritarrek ez dutela aldaketarik nabaritu, ordenantza fiskalak ukitu gabe eskuratuko baititu udalak sarrera horiek. Diru-sarreraren aurreikuspenak igotzeko, bi arrazoi funtsezko daude: alda batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak igo egin du udaletara bideratu ohi duen fondo foralaren aurreikuspena (Usurbilen kasuan, 100.000 euro gehiago); eta, beste alde batetik, EIOZ Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergatik eskuratuko den diru kopurua handituko dela aurreikusten da. 2020. urtean Usurbilentzat garrantzitsuak izango diren hainbat proiektu garatzen jarraituko du udalak, besteak beste, honako hauek: Matia Fundazioaren etxebizitza zaintzadunen auzunea eta Gureak-Elkar enpresek hartuko duten Zapategi eremua. Diogun bezala, beraz, garapen horiei esker, EIOZ Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga handitu egingo da datorren urtean. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da proiektu horiek Usurbilen lurra hartzea ez dela zori kontua, baizik eta aurreko udal gobernuak egindako lan onaren ondorioz dela. Proiektu horiek Usurbilera ekartzea lortu zuten, eta horrek ahalbidetzen digu aurtengo urtean diru sarrera gehiago izatea, beste proiektu eta inbertsio batzuk bideratzeko.

### **GASTUAK:**

Gure herri-proiektua bost zutabe edo ardatzen bueltan hezurmamitzen dugu, eta ardatz bakoitza indartzea edota sustatzea da aurkeztu dugun aurrekontu-proiektu honen helburu nagusia.

**1) Herri nortasuna.** Ez dago herri bat eraikitzerik baliorik gabe. Balioak gure herriaren oinarria edo zimenduak dira, eta, beraz, gure balioak edota nortasun-ikurrak sustatzea eta sendotzea da gure jardunaren helburu nagusietako bat. Hala, Usurbilen osatzen duten herri/auzoen izaera errespetatzea, herri euskalduna eraikitzea, euskal kultura oinarri mundura zabalik dagoen kultura sustatzea, aniztasuna balio gisa hauspotzea, emakumeak libre biziko diren herri parekidea lortzea, herri hezkuntza sistema propioaren norabidean urratsak ematea edota memorian oinarritutako bizikidetzaren sustatzea dira gure lan lerroak atal honen barruan. Horretarako guztirako, 1,9 milioi euro bideratuko ditugu datorren urtean. Atal honetan aipagarriak dira, esaterako, euskararen ikaskuntzaren doakotasuna, kulturalki herri bizia eta dinamikoa izaten jarraitzeko egitasmoak eta udaletik bideratzen den diru-laguntza, hezkuntzara bideratzen den inbertsioa, migrazioak gurean izan duen eragina ebaluatzeko



Usurbilgo Udala

planteatzen den azterketa, edota Emakumeen Etxea sortzeko emakumeekin burutu nahi dugun parte-hartze prozesua. Halaber, esanguratsua da datorren urtean auzoetako bizi kalitatea hobetzeko, bideratu diren egitasmoak, hala nola, Txokoalden Akerra eraikinean auzoarentzat izango den proiektu bat gauzatzea, Pelaiouenean auzoarentzat txoko bat uztea edota Aginagan egingo den Elutx bidea.

**2) Herri jasangarria.** Guretzako jasangarritasuna ardatz nagusia dela esan dezakegu. Oinarrizko irizpidea. Irizpide transbertsala, gure udal-jardun osoa blaitzen duen irizpidea. Helburua argia da: gure ondorengoek guk jaso dugun herriaz gozatzeko aukera izatea. Aurrez aipaturiko baloreetan oinarritutako herri jasangarri bat eta ingurumenarekin harmonian biziko den herri bat eraikitzea izango dugu helburu. Zeregin horretarako, 3,2 milioi euro bideratuko ditugu.

Ardatz honen baitan kokatzen ditugu hirigintza, ingurumena eta zerbitzuak eta obrak. Besteak beste, HAPOaren lanketan jarraituko dugu hirigintza jasangarriaren ikuspegia lantzen. Azken urteetan landutako hausnarketa eta plangintza ezberdinak garatuko ditugu Kale Irekiak edo Oriako Paisaia Planeko egitasmoak aurrera eramanez. Hondakinen kudeaketa jasangarria lortzea izango du helburu, Usurbil 0.0 plangintzarekin aurrera eginez. Efizientzia energetikoaren bidean, argiteria publikoa kontsumo baxuko eta ingurumenari kalterik eragiten ez dioten LED argiekin ordezkatzeko jarraituko dugu.

Bestalde, zerbitzuen atalean adierazgarria da gure ur sistema propioaren norabidean, datorren urtean egingo den inbertsioa. Gaur egun, Erroizpeko urez hornitzen ditugu Usurbilgo etxeen %40 inguru, eta gure helburua ahal den toki guztietara iristea da hornitzea. Horretarako, ezinbestekoa da, presako ura baliatu ahal izatea, eta horrek derrigorrean inbertsioak egitea eskatzen digu, filtrazio sistema bat jartzea, esate baterako. Horretan 350.000 euro bideratuko dugu. Datorren urtean egingo dugun inbertsiorik garrantzitsuena izango da.

**3) Ongizartea.** Generoa edota jatorria edozein delarik ere, bazterketarik gabe eta askatasunez bizi ahal izateko Usurbil jasangarria dugu helburu. Ingurumenarekin armonian biziko dena, herritar eleanitzez osatua, eta bizikidetzeta eta kultur aberastasuna oinarri, euskaraz biziko dena. Balore horiek gure nortasun ikur bihurtuz, usurbildarrak Usurbilen hobeto bizi daitezen, osasuntsuago eta alaiago, zerbitzu egokiz hornitu nahi dugu gure herria, eta gure garapen ekonomikoa helburu horren zerbitzura jarritz. Usurbildar guztiei, izan gazte izan heldu, bizi kalitate hobea eskaintzeko helburua izango dugu zehatz esanda. Helburu horretarako, beraz, 2,1 milioi euro bideratuko dira.



Usurbilgo Udala

**4) Udala, herriaren zerbitzura:** Egitasmo horiek guztiak aurrea eramateko, argi daukagu udal baliabideak herriaren zerbitzura jarri behar direla. Pisu handia hartzen du atal honek gure aurrekontuetan, izan ere, ia 5 milioi euro bideratuko dira datorren urtean. Nabarmenezkoa da, zentzu horretan, hiru eurotik bat pertsonal gastuek eragiten dutela. Arlo publikoari ematen zaion garrantziaren adierazgarri da datu hori, kalitatezko zerbitzu publikoak usurbildarrei eskaintzeko helburuz.

Edonola ere, datorren urtean kanpora begira jartzeaz gainera, barrura begira ere jarri nahi dugu, hainbat hutsune eta gabezi konpontzeko. Udala berrantolatzeke plana ari gara osatzen, eta jopuntuan usurbildarrei kalitatezko zerbitzu publiko eta eraginkorra eskaintzea da. Horretarako, lau lan-ildo jarri ditugu martxan: udalaren digitalizazioa, artxibo sistema berria, espazioaren antolaketa berritua eta kalitatezko enplegu publikoak sortzea. Lan-ildo bakoitzerako diru-partida garrantzitsuak aurreikusten dira. Esate baterako, administrazio elektronikoa abian jartzeko, Udalak programa bat sortuko du, eta pertsona bat kontratatuko da espreski horretarako, izan ere, ulertzen dugu Usurbilgo Udalak ezin duela atzean geratu eta urrats irmoak egin behar direla digitalizazioaren bidean.

**5) Usurbildik Euskal Herrira:** Era berean, Usurbil, Euskal Herriari eta munduari begira ere badago, eta gure ekarpena egin nahi diegu nazio eraikuntzako proiektuei edota, elkartasuna eta internazionalismoaren balioak geure eginez, garapen bidean dauden herrialdeei. Horren barruan kokatzen ditugu Udalbiltza, Eudel edota UEMA, eta baita Euskal Fondoa ere.

Hori horrela esanda, kontutan izan ditugun **irizpide orokorrak** ondorengoak izan dira:

- Herritarren eskubideak eta ongizate-egoera indartzea (enplegu duina sustatu...).
- Gizarte arloan murrizketarik ez egitea eta herritarrek dituzten beharrei erantzuteko baliabide nahikoa bermatzea (gizarte larrialdietarako diru-laguntzak, familia esku hartzeak...).
- Pertsonak eta herritarrak erdigunean jartzen dituzten aurrekontuak egitea.
- Berdintasun politikak bultzatzea.
- Hizkuntza normalizazioa. Euskara ikasteko doakotasuna.



Usurbilgo Udala

- Herrigintzan aritzen diren eragileei laguntzak, PH modu bezala ere ulertuta.
- Ingurumena babesten duten politikak.
- Enplegu publikoaren defentsa.

2020ko aurrekontuak egiterako orduan **sarrerak eta gastuen oreka** aurkitu behar izan dugu aurrekontu guztietan bezala.

-**Sarrerak** kalkulatzeko orduan, aurten ere **zuhurtziaren printzipioa** kontutan izan dugu.

- **Zerga, tasa eta prezio publikoen kasuan berriz ordenantza fiskalean aplikatutako KPI igoerak** hartu ditugu kontuan eta EIOZaren kasuan Hirigintza saialeko arduradunak egindako txostena.
- Nolabait ere, **bermatuak dauden diru laguntzak**, soilik izan ditugu kontutan.
- **Fondo Foralaren** igoera berriz, Aldundiak egindako aurreikuspena da.
- **Diru sarrerak guztira 12.375.710€ izango dira**

-**Gastuen kasuan, gastu arruntak 10.632.075 €koa da eta inbertsioak 1.743.635 €koa.**

-**Inbertsio nagusiak**

HERRI NORTASUNA

- Liburutegia; fondo berriak eskuratzea: 14.500€
- Suteagirako nahasketa mahaia: 10.080€
- Lanbide hastapena; Attaluko pabiloia egokitzea: 10.000€
- Pelaiouena berritzea eta egokitzea: 150.000€
- Txokoaldeko plaza: 5.880€
- KALE IREKIAK, Elutx bidea: 50.000€



Usurbilgo Udala

- Zubietako inbertsioak: 40.000€
- Txokoalderako gizarte ekipamendua: 200.000€
- Zumarteko barne ekipamendua: 30.000€

## HERRI JASANGARRIA

- Pikaola zati baten urbanizazioa: 220.000€
- Usurbil 0,0: 39.000€
- Efizientzi energetikoa: 75.000€
- Lasarte-Usurbil bidegorriaren aurreproiektua: 30.000€
- Brigadarako hondeamakina: 171.175€
- Ur-honidura zerbitzuan konponketak: 350.000€
- KALE IREKIAK: Laboa plaza-Artzabal oinezkotzea: 200.000€

## ONGIZARTEA

- Oiardoko pistako harmaila berriak: 90.000€
- Oiardoko kamaren konponketa eta berriak jartzea: 14.000€
- GUZTION proiektuaren garapena: 30.000€
- Barne ekipamendua: eguneko zentroa, bulegoa eta abar: 2.000€

## UDALA HERRIAREN ZERBITZURA

- Multifuntzioak eskuratzea: 5.000€
- TETRA komunikazio sistema berria: 7.000€

## **2020ko aurrekontuak osatzeko prozesua** ondorengoa izan da:

- Aurrekontuak **herritarrekin** konpartitu genuen auzoz auzo eta egindako ekarpenak kontutan izaten saiatu gara. Horretarako 7 bilera egin dira auzo ezberdinetan aurrekontuak aurkeztuaz.
- **Teknikarien proposamenetan oinarritua** osatu da aurrekontuen zati handi bat eta beraiekin egindako doikuntzak ere bertan txertatuak izan direla esan behar. Horretaz gain, aurrekontuk bere osotasunean ere teknikariekin konpartitu genituen beraiekin egindako bi saiotan.
- **Oposizioarekin** ere konpartitu ditugu eta adostutako tarte bat eman da ekarpenak egiteko. Urriaren 10ean aurkeztu genituen aurrekontuak eta urriaren 22ko batzorde arte ekarpenak jasotzeko tarte ireki genuen.



Usurbilgo Udala

- Bukatzeko, azaroaren 22ko batzordean landuko dugu azken aldiz 2020 urteko aurrekontu proiektua

2020 urterako Udal Aurrekontu proposamena osaturik, indarrean dagoen Araudian ezarritakoa betez, hurrengo ezaugarriak aipa daitezke:

<b>SARRERAK</b>		<b>2020</b>	
		€	%
I	Zerga zuzenak	3.052.535,00	24,67
II	Zeharkako zergak	1.266.568,00	10,23
III	Tasak eta besteak	2.426.094,00	19,60
IV	Transferentzia arruntak	5.567.327,00	44,99
V	Ondare sarrerak	59.186,00	0,48
	<b>Sarrera arruntak:</b>	<b>12.371.710,00</b>	<b>99,97</b>
VI	Inbertsioak besterenganatzea	0,00	0,00
VII	Kapital transferentziak	4.000,00	0,03
IX	Finantza pasiboak	0,00	0,00
	<b>Kapital sarrerak:</b>	<b>4.000,00</b>	<b>0,03</b>
	<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>12.375.710,00</b>	<b>100,00</b>

  

<b>GASTUAK</b>		<b>2020</b>	
		€	%
I	Langile gastuak	4.276.897,00	34,56
II	Ondasun eta zerbitzu arruntak	4.973.700,00	40,19
III	Interesak	20.000,00	0,16
IV	Transferentzia arruntak	873.478,00	7,06
V	Kreditu globala	100.000,00	0,81
	<b>Gastu arruntak:</b>	<b>10.244.075,00</b>	<b>82,78</b>
VI	Inbertsio errealak	1.743.635,00	14,09
VII	Kapital transferentziak	88.000,00	0,71
VIII	Finantza aktiboen aldaketa	0,00	0,00
IX	Finantza pasiboen aldaketa	300.000,00	2,42
	<b>Kapital gastuak:</b>	<b>2.131.635,00</b>	<b>17,22</b>
	<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>12.375.710,00</b>	<b>100,00</b>

2.- Aurrekontu proiektu honek dituen ezaugarri nagusienak, gastuetan nola sarreretan, hurrengoak dira:

#### Gastuetan:

- Pertsonal gastuetan 4,27 milioitara iristen gara, aurrekontuaren %34,56



Usurbilgo Udala

Kopuru honetara iristeko arrazoiak ondorengoak dira:

- Soldaten %2ko igoera aurreikusi da aurrekontuan, Estatutik ezarritako lege betebeharrak horrela uzten dutela aurreikusita.
  - Komunikazio arduradunaren gastua, 2020an pertsonaleko kapituloan txertatu da.
  - Udalaren barne berrantolaketa martxan jartzeko, programa bat abiatuko dugu Administrazio Elektronikoa sustatzeko.
  - Aurreikusten diren aurre jubilazioen ondorioz, indemnizazioko kopuruak gorakada izan du.
- 
- Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak 4.973.700€ osatzen dute, aurrekontuaren %40,19a. Iazko aurrekontuan 5.029.214€ izan ziren.
  - Finantza gastuak aurrekontuaren % 0,16a suposatzen dute
  - Transferentzi arruntak aurrekontuko %7,06a osatzen dute. Besteak beste, Udalak berak ematen dituen diru-laguntzak daude: kulturgintzarako, hezkuntzarako, euskalgintzarako, ingurumenerako eta gizarte ekintzarako.
  - Inbertsioen kapituluak igo dira, 1,74 milioi eurotako inbertsio mailara iritsiz. 2019an 1,62 milioi aurreikusi ziren. Beraz, aurreko urteko kopurua %7,6 inguru igoaz. Egingo diren inbertsio guztiak inbertsioen atalean ikus daitezke.
  - 2020ko ekitaldi honetan, kapital transferentzia batzuk ere aurre ikusten dira: Igogailuak jartzeko diru-laguntzak (10.000 €) eta garapen bidean dauden herrientzat (78.000€ euro).
  - Finantza pasiboak amortizatzeko aurten 300.000 euro aurreikusten dira. Pasa den urtean 115.000€ gutxiago zenbait mailegu ordaintzea bukatu dugulako.

Sarrereri dagokienean:



Usurbilgo Udala

1. Kapituluari, hau da zuzeneko zergetan 3.052.535 € jasotzea aurreikusten da, ordenantza fiskalaren aldaketak dituen eraginak kontutan hartuz.
2. Kapituluari Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zergan urtean zehar ematea espero den lizentziengatik jasotzea espero dena agertzen da, 1.266.568 €. Espedientean jasotzen da Udal arkitektoaren txostena eta bertan agertze dira 2020an aurreikusten diren eraikuntzak eta dagozkion zergak
3. Kapituluari tasa eta bestelako sarrerak ikusi genitzake 2.426.094 euro, ordenantza fiskalaren aldaketan ondorioz eratortzen delarik nagusiki.
4. Kapituluari transferentzia arruntak igoera izango dute, iazko 5,386 milioitik 5,567 milioitara pasatuz. Zalantzarik gabe garrantzitsuena Udal Finantziario Foru Fondoarena igoera izango da, aurrekontu berriei begira 4.472.739€ izendatu zaizkio Usurbilgo Udalari. 2019ko aurrekontu aurreikuspena baino 133.004€ gehiago edo 2019ko itxiera aurreikuspena baino 62.720€ gehiago.
5. Kapituluari Ondare sarrerak eragin apala izango dute, Aurrekontu osoaren %0,48 besterik ez.

Laburbilduz, beraz, alkatetza honen ustez, honako ezaugarri hauek ditu 2020ko aurrekontu proiektuak:

- Egokia: Sarrera guztiak, banan bana zaindu eta miatu ondoren ahalik eta erarik egokienean gastatzea planteatzen da, ohiko gastuak ahal den neurrian mugatuz eta inbertitzeko ahalegina eginez.
- Aberastasunaren banaketa justua ahalbidetzea: Udalaren azken urteotako apustu nagusietako bat izan da herrikideen bizitzak





Usurbilgo Udala

erdigunean jarri eta zaugarritasunari eta ziurgabetasunari erantzunez, herrikide guztien bizi-baldintza duinak bermatzeko politikak ahalbidetzea, eta datorren urtean ere ildo beretik jarraituko dugu.

- Kontrolatua: Aurrekontu kontrolatua eramateko esfortzu berezia egiteko borondatea dugu; hala nola gastu korrontea zuzenki kontrolatuz eta zorpetze maila ere kontrolatuz.
- Herriaren beharrei erantzuten dio: Inbertsio zuzenen bidez 1.743.635€ erabiltzen dira. Orokorrean, gaur egun Usurbilgo Udalak ematen dituen ondasun eta zerbitzuak mantentzeko beharrezkoak diren inbertsioak aurreikusi dira aurrekontuan. Hori izan da aplikatuko dugun irizpidea.
- Auzoen beharrei lehentasuna ematen die, eta auzo-ekipamenduak bideratzea aurreikusi da, hala Txokoalden nola Kalezarren.
- Emakumeen ahalduntzean sakontzeko aurrekontuak dira. Horren lekuko emakumeekin batera egin nahi den parte-hartze prozesua, Emakumeen Etxea sortzeko.
- Ingurumenarekiko abegikorak izango diren politikak sustatzea helburu duten aurrekontuak dira.
- Udalgintza ulertzeko eta egiteko moduaren isla dira aurrekontuak. Bai aurrekontuak osatzeko moduan, bai modu kolektiboan hausnartzeko eta bidea egiteko planteatu diren egitasmoetan.
- Udalaren barne mailako berrantolaketari eusteko erronkaren eta konpromisoaren lekuko dira aurrekontuak. Azken batean, gure helburua usurbildarrei kalitatezko udal zerbitzu eraginkorra eskaintzea



Usurbilgo Udala

da, eta horretarako hainbat lan-ildo eta baliabide berri bideratu ditugu,  
helburu horren mesedetan.

**Usurbil, 2020ko azaroak 19a**

**ALKATEAK**